# ITSASU ITXASSOU

## Herriko informazioak Lettre d'informations

**N°1 septembre 2020**

Cette lettre d'information émane, sous cette forme concise, de la volonté de faire parvenir à l'ensemble des itsasuar les nouvelles du conseil municipal et de la commune après deux mois de mandat.

Nous entendons par la suite revenir à la publication d'un bulletin municipal « classique » dont la rédaction sera notamment travaillée par la commission « informations » constituée au sein du Conseil Municipal.

Les itsasuar ont porté une nouvelle majorité à la mairie au terme du second tour des élections municipales. Le conseil municipal, installé le 4 juillet 2020, a élu maire et adjoints lors de cette première séance. Vous trouverez ci-dessous sa composition ainsi que l'attribution de ses membres.

**Herriaren eta Herriko Kontseiluaren berrien helarazteko xedearekin landu dugu ondoko lerroetan kausituko duzuen informazione gutun hau. Ondotik itzuliko gira ohizko Herriko Etxearen berri aldizkarirat. Hortarako antolatu dugu „informazione" komisione bat herriko kontseiluan.**

**Itsasuarrek gehiengo berria ezarri dute herriko etxean aurtengo bozkaldiaren bigarren itzulian. Herriko Etxeko kontseiluak bozkatu ditu auzapez eta axuantak 2020ko uztailaren 4ean. Itsasuko Herriko Kontseiluak, ikusiko duzue hemen nola osatua den eta nola banatuak dituen kideen gaitasunak.**

**Mizel HIRIBARREN, Maire/auzapez**

**Nicole ETXAMENDI**
**1ère adjointe en charge de l'Urbanisme et de l'Habitat**
**1. axuanta, hirigintza eta bizitegiak**

**Michel SETOAIN**
**2ème adjoint en charge des Finances, des Bâtiments Communaux et de la Voirie**
**2. axuanta, diruzaingoa, herriaren eraikinak eta bideak**

**Mirentxu PARACHU ELISSALDE**
**3ème adjointe en charge de l'Agriculture, de l'Environnement et de l'Economie**
**3. axuanta, laborantza, ingurumena eta ekonomia**

**Emile HARISPOUROU**
**4ème adjoint en charge de la Culture, des Fêtes et de la Vie Associative**
**4.axuanta, Kultura, Elkarteak eta bestak**

**Maialen OSPITAL**
**5ème adjointe en charge des Affaires Sociales et des Ecoles**
**5. axuanta, gizarte arazoak eta eskolak**

**Maialen ETCHEMENDY**
**Emmanuelle CAUSSADE**
**Evelyne LAGAN**
**Laetitia CROC, Délégation Démocratie participative/ demokrazia partehartzailearentzat delegatua**
**Gillen HIRIBARREN, Délégation Euskara/ euskararentzat delegatua**
**Peio IRIQUIN**
**Jokin TEILLERIE**
**Marie-Hélène ITURBURUA**
**Jean-Paul ITURBURUA**
**François-Xavier BELLEAU**
**Denise MACHICOTE POEYDESSUS**
**Louis USTARROZ**
**Jokin IRUNGARAY (installé conseiller municipal le 25 juillet 2020 suite à la démission de Filipe Lascaray)/ kontseiluko kide ezarria Filipe Lascaray-en kargu uztearen ondotik 2020eko uztailaren 25an)**

**Permanences**
***Herriko etxean egonen*** **:**

**Nicole ETXAMENDI**
Lundi / Astelehenetan
de 9h00 à 10h00

**Michel SETOAIN**
Lundi / Astelehenetan
de 8h30 à 9h30

**Mirentxu PARACHU ELISSALDE**
Lundi / Astelehenetan
de 11h00 à 12h00

**Emile HARISPOUROU**
Mercredi / Asteazkenetan
de 15h00 à 16h00

**Maialen OSPITAL**
Mercredi / Asteazkenetan
de 9h00 à 10h00

Et sur RDV
Eta Hitzordua hartuz

Tous les élus se sont accordés sur la répartition des principales responsabilités, et chacun a affirmé en conseil municipal la volonté de travailler dans l'intérêt commun du village, en valorisant autant que possible la diversité des approches.

Comme chacun peut l'imaginer, l'entrée en fonction d'une nouvelle équipe dans la maison commune oblige à une immersion complète dans des dossiers multiples et variés, tous aussi prioritaires les uns que les autres.

Le virus Covid 19 aura été l'invité surprise de cette année 2020. Il aura lourdement terni nos quotidiens, des plus jeunes aux plus âgés. Les aînés et les personnes vulnérables auront craint pour leur santé, et se seront parfois préservés jusqu'à souffrir d'isolement.

La crise économique fragilisera durablement le pouvoir d'achat des itsasuar aux revenus bas et moyens, et risque d'impacter jusqu'à l'accès à l'emploi et au logement des habitants du village.

Le post confinement aura par ailleurs provoqué cet immense appel d'air favorable au tourisme de masse vers nos montagnes et nos rivières, au point d'encombrer la plupart de nos routes communales, et d'irriter les habitants de nos quartiers.

Combien d'autres dossiers encore qui ne se régleront pas d'un claquement de doigt, et qui méritent des réflexions collectives et des actions concrètes et concertées.

Saluons l'engagement et la compétence de l'ensemble du personnel des services de la commune. Employées de bureau à la mairie, agents d'entretien extérieurs ou préposés à l'école, à la cantine ou à la garderie, chacune et chacun contribue au service public d'Itsasu et mérite toute notre reconnaissance.

Le conseil municipal d'Itsasu compte sur chacun de vous pour activer ensemble et au plus vite les ressorts de l'optimisme, de la responsabilité et de la solidarité.

Hautetsi guziak adostu dira ardura nagusien banatzeko orduan, bakotxak herriko kontseiluan adierazi duelarik herriaren onetan lan egiteko gogoa, ahal den guziz ikuspegi ezberdinez aberastuz.

Herritar guziek asmatzen ahal duten bezala, gidaritza berria herriko etxe batean sartzen den aldi guziez bezala, dozier ezberdin multzo nasaiean sartu behar da gorputz eta gogo, batzu besteak bezain premiatsuagoak direlarik.

Covid 19 birusa dugu 2020ko ustegabeko bisitaria. Hainbeste nahasi dauku bakotxaren eguneroko bizia, gazte gazteenetarik adinetakoetaraino. Asko beldurtu ditu gaitzak, osagarri eskasekoak edo xaharrak izanik, eta geritzen bilatzen zutelarik bakartasuna pairatu dute. Ekonomiaren krisialdiak aldiz ahulduko ditu luzarako irabazi murritza edo ertaina duten itsasuarrak, mehatxuan jartzen ahal dituela gure herritarren lanbideak eta alokairu kausitzeak.

Bestalde, konfinamendu ondoak itsas haizeteak bezala igorri ditu udatiar osteak gure mendi gune eta ereka zoletarat, herriko bide hertsi guziak kokatzeraino, eta auzoetako egoiliarrak kexu gorrian jartzeraino. Bada ere beste dozier frango erri klixkako batez konponduko ez dena, gogoeta kolektibo barnakorra eskatzen duena, lehen bait lehen elkar aditu egintzetarat heltzeko.

Goretsi nahi dugu Itsasuko herriko langileen engaiamendua eta gaitasuna. Herriko Etxeko bulegotan enplegatu, kanpoko lanetan herriko « mutil », eskoletako, jantegiko, haurtzaindegiko enplegatu, bakotxak eta denek berena ekartzen dute gozatzen dugun herri zerbitzuari, gure ikustate osoa zor diegu.

Itsasuko Herriko Kontseiluak herritar guzien baitan kondatzen du etorkizun baikorragoari, arduratsuagoari eta elkartasunezkoagoari lehiatzeko.

## CCAS / Laguntza Socialeko Herriko Zentroa

Le Centre Communal d'Action Sociale (CCAS) d'Itxassou est présidé par le Maire et compte 16 membres dont 8 représentants du conseil municipal et 8 membres de la société civile.

*Conseillers municipaux* : Maialen Ospital, Emmanuelle Caussade, Nicole Etxamendi, Maialen Etxemendi, Laetitia Croc, Marie Héléne Iturburua, Jean Paul Iturburua et Denise Machicote-Poeydessus.
*Société civile* : Marie-France Aguerre, Pantxika Aguerre, Nathalie Aguerre-Bouvier, Jean Alfonso, Corinne Dagorret, Arantxa Eyherabide, Pantxika Iriquin, et Ainhoa Murillo.

Le Conseil d'Administration a été installé le 20 août dernier. Ses membres vont désormais initier un travail de reconnaissance du territoire et d'échanges avec les différents services pour cibler les besoins et mettre en œuvre une politique sociale. A noter que le CCAS pourra ponctuellement faire appel à des personnes ressources pour l'accompagner sur sa mission.

## Les Ecoles / Eskolak

La rentrée scolaire a eu lieu ce 1er septembre et concerne sur nos trois écoles 243 élèves dont 88 en classes de maternelles. Dans le contexte Covid, le protocole sanitaire est connu depuis le 27 aout. Ce protocole impose des règles notamment d'hygiène, de nettoyage et de désinfection qui nécessitent un aménagement des plannings des personnels.

La commune se mobilise et confirme un fonctionnement aménagé des services périscolaires :
- garderie : un service organisé, pour l'heure, au sein de chaque école et assuré par les agents communaux
- cantine : un aménagement organisé en 3 zones

Cette crise sanitaire impose à chacun d'entre nous vigilance et responsabilité pour garantir, autant que faire se peut, le bien-être et la santé de tous.

**Ikasturtea hasi da buruilaren 1ean gure herriko hiru eskoletan 243 haurrekin, hauetarik 88 ama eskolan ibiliko direlarik. Covid giro berezi huntan, osasunaren zaintzeko protokoloa jakina da agorrilaren 27-az geroztik. Protokoloak behartzen ditu orokorki garbitasuna eta desinfektatzeak zorrozki jarraitzerat, eta araberan herriko etxeko enplegatuen lan denbora egokitzerat.**

**Herriko etxeak antolakuntza berezi bat proposatu du :**
**- Haurtzaindegia : ikastetxe bakotxarentzat, herriko etxeko langileen gain**
**- Jantegian : haurrak, 3 zatitan banatuak**

**Krisialdi samin hunek gutarik bakotxaren begia eta ardura eskatzen du, denen osasuna geritzatzekotz.**

## Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) / Euskal Herriko Herri Elkargoa

Communauté D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE EUSKAL HIRIGUNE Elkargoa

La Communauté d'Agglomération Pays-Basque (CAPB) est désormais installée et en ordre de marche. Son organisation est identifiée, les instances installées et les élus mandatés au titre des diverses compétences et délégations.
Notre commune fait partie du territoire « Errobi », l'un des 10 pôles qui composent cette structure intercommunale (EPCI) et dont le référent élu est Peio Etxeleku.

Les représentants au pôle Errobi pour Itxassou sont Nicole ETXAMENDI (titulaire), Laetitia CROC (suppléante) et Mizel HIRIBARREN (invité permanent). Leur travail est d'autant plus important à cette échelle décisionnelle que les pôles ont notamment, selon le pacte de gouvernance 2020-2026, « un pouvoir d'initiative pour faire émerger des projets à l'échelle du pôle ».

**Euskal Herriko Herri Elkargoa berriz osatua izan da, izendatuak dituelarik ardura bakotxeko hautetsi gehienak. Itsasuko herriaren izenean Nicole Etxamendi da egonen Elkargoan, Laetitia Croc delarik ordezkari. Gainerat, gure Herria Elkargo zabal hori osatzen duten hamar poloetarik bateko partaide da. Peio Etxeleku kanboko hautetsia bozkatua izan da Errobi polo hunen kudeatzaile. Nicole Etxamendi eta Laetitia Croc egonen dira Itsasuko herriaren izenean, eta auzapezak bilkura guzietan parte hartzen ahalko du.**

**Errobi poloa gune garrantzitsua da, hor baitira Elkargoaren azken paktoaren arabera, agertzen eta sustatzen Errobi gune osoa hunkitzen duten proeiktoak.**

## IntraMuros eta Internet gunea

La Municipalité d'Itxassou a souscrit une adhésion à l'application mobile IntraMuros qui lui permet depuis la Mairie d'informer, alerter et consulter les villageois.

Chaque administré doté d'un smartphone peut gratuitement télécharger l'application IntraMuros, sélectionner la commune d'Itxassou et désormais par simple notification être informé en temps réel des actualités et des évènements de la commune.

Il pourra également utiliser l'ensemble des services mis à disposition sur l'application : l'annuaire, le signalement d'un problème, les sondages, les associations, les écoles et les commerces.

L'ensemble des informations relatives à la commune demeurent toujours disponibles sur le site internet de la mairie *www.itxassou.fr* et les portes de la mairie restent ouvertes quotidiennement pour accueillir et informer les administrés.

**Itsasuko herriko etxeak harpidetza bat hartu du IntraMuros aplikazionearen erabiltzeko. Molde hortan herriko etxetik zabalduko litezke berriak, helaraziko alertak eta herritarren ikuspegiak bilduko.**

**Smartfona duten herritar guziek telekargatzen ahal dute dohainik IntraMuros : Itsasuko herriko eremuan sartuz geroz, zabalduak diren herriko berri eta gertakari guziez jakinean izaiten ahal da.**

**Gainerat, baliatzen ahalko dira IntraMuros-ek eskaini bestelako zerbitzu guziak : telefono aurkitegia, edozoin elkarte, eskola ala komertzio abisuak.**

**Bestalde, Itsasuko herriari doazkion berri guziak kausitzen dira herriko etxeko web gunean www.itsassou.fr eta herriko etxeko ateak egunero zabalik daude herritarren entzuteko eta informatzeko.**

## Chantier d'agrandissement de la cantine scolaire/ Eskoletako jantegiaren haunditze obrak



Ce mois de septembre débuteront les travaux d'agrandissement de la cantine scolaire qui consistent en une extension de 110 m², un gain de 88 places supplémentaires, l'aménagement d'un bloc sanitaire complémentaire.

Elus, entreprises et maître d'œuvre sont mobilisés afin que l'organisation du chantier impacte le moins possible l'accès à la cantine, la garderie et la crèche.

**Herriko eskoletako jantegiaren haunditze lanak hasiko dira buruilaren hastapenean. 88 jarlekuz zabalduko da jangela, 110 m2-tuz hedatuko delarik jantegi barnearen eremua.**

**Ofiziale, enpresa eta hautetsiak arduratuko dira haurtzaindegi eta eskolen gerizatzeaz obren ondorioak gutienik pairatzeko.**

## Avis Travaux / Obrak abisua

Le Conseil Départemental a planifié des travaux de reprise de chaussée au Pas De Roland. A cette occasion, Enedis et Orange vont enfouir les réseaux. Ces travaux imposent une fermeture complète de la route, de jour comme de nuit et week end compris, à compter du 14 septembre et pour une durée prévisionnelle de 6 semaines. Une déviation sera mise en place par Gibelarte et Gehasto.

**Departamenduak erabakia du udazken huntan berritzea Latseko Errebidea, Ataitzetako arrokarte guzian. Enedis eta Orange-k lurperatuko dituzte bide azpian beren hari sare guziak. Latseko bidea osoki hetsia izanen da gutienez sei astez, obren aintzinamenduaren arabera. Itzulia egin beharko da Gibelarte edo Gehastotik, egunaz eta gauaz, asteburuak barne.**

La Commune a décidé d'apporter, dans l'urgence, une réponse à la problématique de passage particulièrement glissant et dangereux sur la route de Gerasto. Une intervention visant à un micro-rabotage est prévue dans l'immédiat avant d'arrêter une solution efficace et durable.

**Herriko Etxeak lehentasunetan ezartzen du Gehastoko bidearen atxiki eskasaren hobetzeko obrak eginaraztea. Legarreko leporat heltzeko azken patar gunean, adituen aholkuak entzunik, udazken huntan bide zati horren lazteko lanak egin litezke egun bakar batez, berantago aterabide iraunkorrago baten menturan.**

## Difficultés de circulation / Bideetan ibiltzeko nekeziak

Depuis le déconfinement, pour esquisser une réponse à la pression touristique inhabituelle et répondre aux soucis des habitant.es, nous avons dans l’urgence disposé des panneaux d’information et de rappel du code de la route sur les points de circulation sensibles.

Conscients que ces initiatives sont insuffisantes, nous envisageons, pour la saison à venir, une concertation avec les habitant.es et usagers des zones concernées.

**Konfinamendu ondoan, aterabide baten abiapuntu bezala udatiarren uholdeari eta herritarren kexuari, mendi bide sargietan eta erreka bazterretan panel bereziak ezarri ditugu.**

**Badakigu ekintza eskasak direla, eta ondoko urterako herritarrekin eta hunkiak diren eremu horietako egoiliarrekin gogoetak aintzinatu nahi ditugu.**

## La fibre

LA FIBRE 64

Pour permettre l'accès à l'internet très haut débit, le conseil départemental 64 a décidé d'investir dans le déploiement de la fibre sur l'ensemble de son territoire.

Sur ce 1er semestre 2020, les câbles ont été tirés sur Itxassou, et la plupart des habitations sont aujourd'hui susceptibles d'être raccordées. Les particuliers devront maintenant choisir l'opérateur et l'abonnement qui leur conviennent. **Une réunion publique est prévue à Sanoki le mercredi 16 septembre 2020 à 18h30.** Les responsables du programme La Fibre 64 viendront y exposer les modalités de raccordement.

**Internet sarearen indarra gorenean biltzeko, Departamenduko Kontseiluak erabaki du bere eremu guzian fibraren hedapena ordaintzea.**

**2020-ko uda guzian, kableak zintzilikatuak izan dira itsasuko bide bazterretan, eta laster herritar gehienek eskuratzen ahalko dute konekzio bizi bizia. Herritar bakotxari da orain gogo duen fibra harpidetza eta eragilearen hautatzea. Bilkura publiko bat antolatua da irailaren 16-an Sanokin 18’30etan. Departamenduko Fibre 64 egituraren arduradunek agertuko dituzte orduan bizitegiak fibra sareari lotzeko ibilbideak.**

## « La Nive » / « Irigoinbeherea »

Ce site qui appartient à l'UGECAM est fermé depuis plusieurs années. La Commune a toutefois prévu de lui réserver une vocation médico-sociale.
Depuis plusieurs mois l'association « Un Nouveau Regard » qui réfléchit à la création d'un centre pour autistes, avec une école spécialisée pour les enfants et un lieu de vie pour les adultes concernés par ce handicap, souhaiterait concrétiser ce projet en ces lieux.

La mairie d'Itsasu, à l'écoute en particulier des besoins exprimés par les familles, s'intéresse de près à l'avancement du projet.

**UGECAM erakundearen esku den Irigoinbeherea etxea hetsirik dago zenbait urte hauetan. Osasun eta sozial helburua atxiki behar duela erabakia izan da.**
**Eremu eta etxe hortan autismoaren artatzeko eta laguntzeko gune baten asmoa darama Un Nouveau Regard elkarteak. Asmoa liteke autismoak hunkitzen dituen haurrentzat ikastetxe berezitu bat eta autismoa pairatzen duten adin heldukoentzat bizitoki baten altxatzea.**

**Itsasuko herriak, ikusiz bereziki familiek nolako beharrak agertzen dituzten, hurbildik jarraiki nahi du proiektoaren aintzinamendua.**

## « EUSKARA »

De nombreuses actions sont menées, notamment dans les écoles, pour favoriser l'apprentissage de l'euskara.

En tant que mairie, nous souhaitons développer son usage au quotidien, dans l'objectif d'une parité avec le français.

Ainsi, les réflexions et travaux amorcés ces derniers mois se poursuivent avec comme objectif la signature de la Charte des langues minorisées d'Europe. Pour ce faire, nous souhaitons organiser une intervention avec un représentant du Conseil de l'Europe.

**Euskararen ikasteko eta zabaltzeko indar haundiak egiten dira gure ikastetxetan bereziki. Herriko Etxean ere bere lekua eman nahi diogu euskarari frantsesaren aldean.**

**Europako hizkuntza guttituen xarta izenpetzeko gogoetek eta lanek jarraitzen dute. Udazkenean Europako Kontseiluko ordezkariek agerraldi bat egin behar lukete, telematikoa edo presentziala, ibilbideak argitzeko eta helburuetarat heltzeko.**

## Euskaraldia

La 2ème édition d'Euskaraldia va se dérouler **du 20 novembre au 4 décembre 2020**.

A cette occasion diverses animations seront organisées à Itsasu.

**Euskaraldia bigarren aldikotz helduko zaigu azaroaren 20etik abendoaren 4erat.**
**Karia hortarat antolatuko dira animazio bereziak Itsasun.**

## Budget participatif / Buxeta parte hartzailea




Pour ceux qui n'ont pu assister à la réunion publique du 18 août 2020, à l'initiative du Conseil Départemental, sachez que toute personne de plus de 11 ans, tout groupe de personnes ou toute association a la possibilité de présenter un projet susceptible d'être financé par le département.

Votre projet doit être déposé avant le 21 septembre 2020 et aller dans le sens du « **plus proche, plus solidaire** ».
Pour plus d'informations, des brochures sont disponibles en mairie ou sur le site Internet www.budgetparticipatif64.fr

**Buxeta partehartzaileaz egin den bilkuran egon ahal ez direnek agorrilaren 18an, jakin dezate badaukatela proiektu baten aurkezteko parada departamenduaren diru laguntzak eskuratzeko.**

**Proietoek heldu behar dute 2020-ko buruilaren 21-a aintzin, ongi sartuz « hurbilago eta elkartuago » lemapean. Argibide gehiago bada herriko etxean edo web gunean www.budgetparticipatif64.fr**

## Maintenu en détention / Preso atxikia

Mikel Barrios, jeune navarrais habitant Itsasu et travaillant à Baigorri, a été incarcéré à Mont de Marsan au début de l'été. Nous apprenons cette semaine son maintien en détention, au détriment du processus de paix, et malgré une forte mobilisation de la population.

**Mikel Barrios nafartar gaztea, Itsasun bizi zena eta Baigorrin lan egiten zuena, Mont de Marsan-en preso sartua izan da uda hastapenean.**

**Agorrilaren 24-ean jakin dugu preso atxikitzea berritua izan dela, Euskal Herriak azkenaldi hauetan ezagutzen dituen herritar mobilizapen eta bake prosezua mespretxatuz.**

## Nécrologie / Hilberri

**Thierry MICHEL,** habitant d'Itxassou, est décédé le 23 août des suites d'une longue maladie. Il s'était engagé au sein de la liste Herriari lors des dernières élections municipales pour contribuer à l'élaboration d'un projet collectif pour la commune d'Itxassou. Militant fidèle luttant contre toute forme d'injustice sociale, il était l'un des fondateurs et porte-parole du collectif Stop Mines EH qui a lutté efficacement contre le projet d'extraction d'or envisagé dans une vaste zone du labourd incluant la commune d'Itxassou. Nous tenons ici à lui rendre hommage et exprimons nos pensées à sa compagne.

**Itsasun bizi zen Thierry MICHEL zendu zaigu agorrilaren 23an eritasun luzea pairaturik. Herriari zerrendako kide izan zen azken herriko bozketan, Itsasukotz nahi baitzuen elkarrekilako herri proiekto bat aitzinarazi. Bere ibilbide guzian zuzengabekeria guzien kontra altxatu da Thierry Michel militantea, izan zen Stop Mines EH-en sortzaile eta bozeramaile, lehiatzeko gogotik urre meategi proiektoaren kontra, Lapurdiko eremu zabala eta Itsasuko herria hunkiko zituena. Goretsi nahi dugu izan den gizona eta bere bizilagunari adierazi nahi diogu gure elkartasuna.**

## Fêtes d'Itxassou / Herriko bestak

Les fêtes d'Itsasu n'ont, contexte oblige, pas pu se dérouler comme nous le souhaitions.

Le préfet n'ayant donné qu'un accord partiel, le comité des Fêtes et Goxoki ont décidé de rester prudents. Malgré tout, nous souhaitons soutenir, dans le respect des règles sanitaires, les festivités à venir (Arimen festa, Euskaraldia et tant d'autres).

**Denek nahiko ginuen bezalako Itsasuko bestarik ez da izan aurten, Covid gaitzaren giroak beharturik.**

**Prefeturak egitarau parte bat onartu izanik ere, Menditarrak elkarteak eta Goxokikoek arduraz ibiltzea hautatu dute.**

**Horiek horrela izanik, osasun neurriak zainduz, ondoko ilabetetako besta gertakariak bultzatu nahi genituzke (Arimen Besta, Euskaraldia eta beste...)**



**MAIRIE D'ITXASSOU – Itsasuko Herriko Etxea**
**409 Karrika Nagusia - 64250 ITXASSOU - ITSASU**
Tél : 05 59 29 75 36
Site web : www.itxassou.fr